

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Villabonako Udala**

**Ayuntamiento de Villabona**

**2012**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II IRITZIA.....	8
II.1 Udala eta Santiago Udal Egoitza Erakunde Autonomoa .....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
II.2 Villabona Lantzen, SA Sozietate Publikoa.....	9
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2 Kontratazioa.....	10
III.3 Diru-laguntzak.....	12
III.4 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	12
IV. FINANTZA ANALISIA.....	14
V. URTEKO KONTUAK.....	17
V.1 Udala.....	17
V.2 Erakunde Autonomoa.....	20
V.3 Villabona Lantzen, SA.....	23
ALEGAZIOAK .....	23
ABREVIATURAS .....	29
I. INTRODUCCIÓN .....	31
II. OPINIÓN.....	32
II.1 Ayuntamiento y Organismo Autónomo Residencia Municipal Santiago... 32	
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	32
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	32
II.2 Sociedad Pública Villabona Lantzen, SA .....	33
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	33
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	33



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>34</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	34
III.2 Contratación .....	34
III.3 Subvenciones.....	36
III.4 Morosidad y otros aspectos .....	36
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>38</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>42</b>
V.1 Ayuntamiento.....	42
V.2 Organismo Autónomo .....	44
V.3 Villabona Lantzen, SA .....	46
<b>ANEXOS .....</b>	<b>47</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	47
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	48
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	49
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	50
A.5 Gastos de personal .....	50
A.6 Compras de bienes corrientes y servicios e Inversiones.....	52
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	53
A.8 Pasivos financieros .....	54
A.9 Deudores y otros saldos .....	54
A.10 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	55
A.11 Análisis de contratación .....	56
A.12 Villabona Lantzen, SA: existencias y otros saldos.....	57
A.13 Indicadores financieros y presupuestarios.....	58
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>59</b>

Vitoria-Gasteiz, 2014 maiatzaren 29a  
Vitoria-Gasteiz, 29 de mayo de 2014



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

15/2010 Legea	15/2010 Legea, Merkataritzako Eragiketetan Berandutzaren Aurkako Neurriak Ezartzeko dena.
20/2012 LED	20/2012 Errege Dekretu Legea, Aurrekontuaren Egonkortasuna eta Lehiakortasunaren Sustapena Bermatzeko Neurriei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
APKLTB	-2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
TEOA	1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen Arautzea.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa





## I. SARRERA

Herri-Kontuen euskal epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Villabonako Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, erakunde autonomoaren eta sozietate publikoaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta oroitidazkia; baita Udalaren eta bere erakunde autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere Sozietatearen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Villabonako Udalak 5.872 biztanle zituen 2012ko urtarrilaren 1ean; bere egiturari, Udalaz gain, Santiago Udal Egoitza Sozietate Publikoa eta Villabona Lantzen, SA (% 100) Sozietate publikoa barne hartzen ditu, egoitza edo industri lurra sustatu eta eraikin zein zerbitzuak kudeatzeko sortutakoa.

Hondakinen bilketa eta hainbat kultura zerbitzu (musika irakaskuntza, nagusiki) Tolosaldea eta Loatzoko mankomunitateek ematen dituzte hurrenez hurren; gainera, Gipuzkoako Uren Partzuergoko atal da, uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematen dituena. Azkenik, Tolomendi Nekazal Garapenerako Elkartean, Haurreskola Partzuergoan, Tolosaldea Garatzen, SAn (% 8,7) eta Apattaerrekako Industrigunea, SLn (% 3,6) parte hartzen du.

## **II IRITZIA**

### **II.1 UDALA ETA SANTIAGO UDAL EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA**

#### **II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **KONTRATAZIOA (ikus A.11)**

- 1.- Udal eraikinak garbitzeko kontratuaren lehiaketa, 353.700 euroan esleitu zena, GAOn soilik argitaratu zen eta ez DOUE eta BOEn, zegokiokeen moduan (SPKLn 126. art.) (A5 akatsa A.11 eranskinean).
- 2.- Etxez etxeko laguntza emateko zerbitzuaren kontratua, 2012ko ekitaldian 144.110 euroren egikaritza izan zuena, zerga ordaintzetik salbuetsia dagoen irabazi asmorik gabeko erakunde bati esleitu zaio; honek BEZik gabe lizitazio tipoaz gainera prezioa eskaini zuen eta honenbestez, eskaintzari uko egin beharko zioten.

Epaitegi honen ustetan, 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Villabonako Udalak eta Santiago Udal Egoitza Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete dute 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

#### **II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

2012ko abenduaren 31n Udalak GFAri itzultzeko 374.304 ditu 2009 (267.071 euro) eta 2012ko (107.233 euro) ekitaldietako itunpeko zergetan duen partaidetzaren geroraturiko likidazio kontzeptuan, bai aurrekontuan, bai ondarean erregistratuak daudenak eta 2013an gauzatuko direnak (ikus A.4 eranskina).

- 1.- 2012ko abenduaren 31n Villabona Lantzen, SA Sozietate Publikoaren egoera balantzen jasoak dauden izakinen zati esanguratsu baten balioa dela eta azaleratu den zalantza egoeraren ondorioz (ikus II.2.2), ezin dugu jakin ea beharrezkoa ote den Udalak Sozietate Publikoan duen partaidetzaren balioaren gainean narriadura erregistratu behar ote den, Ibilgetu finantzarioan 378.024 euroren balioarekin erregistratua dagoena.

Epaitegi honen iritzira, 1. idatz-zatiko ez betetzea alde batera, Villabonako Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2012ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.





## **II.2 VILLABONA LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen ustetan, Villabona Lantzen, SAK zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

1. egoeraren balantzeko izakinen idazpuruak 64 garaje barne hartzen ditu, 1,1 milioi euroan balioztatuak; horietatik 62 saldu gabe zeuden txosten hau idatzi dugun datan, nahiz 2012ko uztailean sozietateak jaitsi egin zituen garajeen salmenta prezioak haien kostu balioaren azpitik 355.072 euroan. Garajeen egikaritza balio egiazkoa kostua baino txikiagoa da, baina ezin daiteke horien arrazoizko balioa zehaztu, ibilgetuen azokak egun bizi duen egoeraren ondorioz (ikus A.12 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1. idatz-zatiko ez betetzea alde batera, Villabona Lantzen, SAREN Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2012ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

Urteko kontuen gaineko iritzian eraginik izan gabe, beharrezkoa da azpimarratzea egoeraren balantzeko pasiboan 841.140 euroren saldoa barne hartu dela, 2010eko epai batetik eratorritakoa, 2011ko urrian berretsitakoa, Sozietateak garatutako azken sustapenaren enpresa eraikitzailearen aldeko izan dena. Egikaritza luzatu egin dute epaitegiek harik eta izakinak saldu bitartean; honela, bada, saldo hartzekoduna murriztu egin da 130.000 euroan, 2013an gauzatutako salmenten ondorioz. 2014ko urtarrilaren 24an Sozietateak eraikuntza enpresako konkurtso administratzaileekin zorra kitatzea erabaki zuen, bi hilabeteko epean, kontzeptu guztien ordainetan 500.000 euro ordainduta. Erabaki honek zor-saldoa 211.140 euroan murriztea dakar (ikus A.12 eranskina).



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorra hasiera batean Udaltzarak 2012ko otsailaren lehen onetsi zuen; ordea, arautegiak (21/2003 F Aren 15.2 art.) behin betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Aurrekontuak ez du langileei buruzko nahitaezko eranskina barne hartzen, aurrekontu plantilla aurrekontuan zuzkitutako lanpostuekin jasoko duena. Udalak Udaltzaren saio berean aurrekontua eta LZ berria onartzeko ohiturari eusten dio; aurrekontuak, baina, aipatutako eranskina jaso behar du langile gastuen kapituluko aurreikuspenak zehaztuz.
- Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauak faseak (ADO) metatzeko aukera soilik esleipena eta gastuaren aitorpena une berean egiten zenean aurreikusten zuen (21. artikulua); alabaina, orokortasunez egin zen 2012an. Gastua esleitu aurretik kreditu egokirik badela egiaztatu behar da; kontrol hori kopuru txikiko erosketetan soilik saihets daiteke, baimenaren arabera, aurrekontua egikaritzeko urteko arauan barne har daitekeena.
- Komenigarria litzateke udaleko elkarte batek erabilitako udal eraikin baten egoera aztertzea; EA Eri lagatzeko erabakia Udaltzarak adostu zuen 1982an, baina jaso gabe dago hori onartu izana, ezta zein baldintzatan gauzatu zen ere.

#### III.2 KONTRATAZIOA

Indarrean zeuden edo 2012an izapidetutako 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.11):

- Aztertutako sei kontratuen espedienteek, 3,8 milioi euroan esleitu zirenek, ez zuten krediturik bazegoelako eta pleguei buruzko txosten juridikoaren ziurtagiririk, eta lehenengo bostetan, gainera, zerbitzua kontratatzeke beharra arrazoituko zuen txostena jaso behar zatekeen. Gainera, lehenengo bi kontratuen luzapenak ez ziren fiskalizazio-gai izan (A1 akatsa).
- Ietik 5era bitarteko kontratuen pleguek, 3,3 milioi euroan esleitutakoek, modu orokorrean jasotako esleipen irizpideak zituzten (zerbitzuaren antolamenduari buruzko txosten baten hobekuntzak eta kalitatea). Esleipen irizpideek balio-judizioak besarkatzen dituztenean, balorazioan aintzat hartuko diren elementuak zehaztu behar dira (A2 akatsa).
- Hiru kontratutan (2, 4 eta 5 espedienteak), 2,8 milioi euroan esleitutakoak, balio judizioa eskatzen zuten irizpideek formula bat abiaburu hartuta kalkulatu diren haiek baino garrantzia handiagoa zuten, halako kasuetan adituen batzordea eratzeko, edota berariaz gaitutako erakunde tekniko baten parte-hartzea eskatuz, pleguek aurreikusten ez dutena



(A3 akatsa). Gainera, balio judizioa eskatzen duten faktoreak besteak baino lehenago balioztatu behar dira; betekizun hau ez da gorde 2tik 5erako espedienteetan, 3,2 milioi euroan esleitutakoak (A4 akatsa).

- 2, 3, 4 eta 5. espedienteen esleipen hartzaileei eskatutako bermeak, 3,2 milioi euroan esleitutakoak, kontratuaren urteko bat oinarri hartuta kalkulatu ziren, esleipenaren guztizko zenbatekoa hartu beharrean (B1 akatsa).
- 1etik 5era bitarteko kontratuen (3,3 milioi euroan esleitu zirenak) prezio berrikusketak oker aplikatu ziren, esleitu zirenetik urtebeteko epea igaro aurretik gauzatu zirelako edo ofizialak zirenez besteko indizeak baliatu zirelako, araudiak ofizialak soilik erabiltzen uzten baitu (B2 akatsa).
- Espedienteetan ez daude jasoak lorezaintza zerbitzuaren esleipenduna kontratua esleitu zitzaionean zerga eta gizarte obligazioetan eguneratua zegoelako egiaztagiriak (SPKLren 135. artikulua), 254.010 euro egin zituena (C akatsa).
- 6. kontratua 477.467 euroan esleitu zitzaion preziorik baxuena zuen eskaintzari esleipen irizpideetako bat balioztatu zelako; kontratu horren eskaintzak aztertu zituen txosten teknikoak ez zituen aintzat hartu pleguaren ezaugarriak. Horrez gain, Udalak ez zuen aztertutako obraren proiektuaren nahitaezko gainbegiratzea gauzatu (C akatsa).

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak berrikustean publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen erosketak azaleratu dira:

- Hirigintzako aholkularitza kontzeptuko gastuak, 50.337 eurorenak.
- Eraikin, ibilgailu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, guztira 56.445 euroan.

Azkenik, aipatu behar da udal kiroldegiaren kudeaketa 1998an hamar urtetarako esleitu zela eta behin eta berriz luzatu dela 2014ko abendura arte; zerbitzuaren hasierako tarifak aldatuz joan dira eta Udalak jasotzen zituen bi kanonak desagertu egin dira (16.252 eta 11.290 eurokoak, ordaindu ziren azken bi urteetan). Aldaketa hauek guztiek eta prozesuaren antzintasunak zerbitzua berriz lehian ateratzea eskatzen dute; zerbitzua zeharka kudeatzeko aukeraren alde egiten bada, dagozkion ordenantza eta aurreproiektua onartu behar dira.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Loatzoko Mankomunitateak, egiteko nagusi musika irakaskuntza duenak, 151.776 euro jaso zituen 2012an, aurrekontuan transferentzia modura izendatu zirenak; horren ordainketa Gobernu Kontseiluak onartu zuen ekitaldi hasieran, justifikazioari buruzko zehaztapenik batere egin gabe. Alabaina, Mankomunitateko estatutuen 11. artikulua agintzen du ekarpenak kalkulatu behar direla udalerriko ikasle kopuruaren eta udalerrri bakoitzari emandako zerbitzuen egiazko defizitaren arabera; Udalak, baina, ez du informazio hori eskura.
- Tolosaldea Garatzen SARI eta Tolomendi Nekazal Garapenerako Elkarteari egindako ekarpenak transferentzia modura erregistratu zituen Udalak eta honenbestez, ez zen laguntzei emandako erabileraren justifikaziorik eskatu, 36.337 euro egin zutenak. Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak aurreikusten zuen transferentzien onuradun zirenek oroitidazki justifikagarria aurkeztu beharko zutelara, baina hori ere ez zitzaien eskatu. Nahiz udalek partaidetutako erakundeak diren, erakunde hauei egindako ekarpenak diru-laguntzat hartu behar dira, ez baitaude udal administrazioan jasoak.
- 2012ko aurrekontuko 3 diru-laguntza izendun nagusiak, guztira 85.475 eurorenak, hartzaileen eskubide eta obligazioak arautuko dituen hitzarmenik gabe eman ziren.
- Udalean diharduten hiru alderdi politikoek Udalbatzak ezarritako kopuruaren arabera 29.760 euro jaso zituzten euren jarduerak finantzatzeko; ordainketa hauek TAOALen 73.3 artikulua aurreikusten ditu, erregulazio bat garatzearekin batera; Udalak, ordea, ez du halakorik gauzatu.
- Kultur eta kirol jardueretarako deialdiak banaketarako hainbat irizpide zehazten zituen, baina bi emakida ebazpenetan, guztira 51.155 eurorenak, ez ziren eskabideak irizpide horiek aintzat hartuta balioztatu. Laguntzak jaso zituztenen arteko bi nagusien justifikazioa aztertu ondoren ikusi da jaso izanaren agiriek kasu batean aurkeztutako justifikazioaren % 27 egiten dutela.

### III.4 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak Aldundiari zuzendurik ordainketa epeei buruzko hiruhileko txosten nahitaezkoak mamitu zituen (15/2010 Legearen 4. artikulua), egindako ordainketen % 35 eta % 54 bitarteko ez-betetzeen berri ematen dutenak.
- HILBIZen likidazioa zergaren sortzapenarekiko atzerapenez egiten da, informazioa berandu igorri izanaren ondorioz; honela, bada, 2013an 2011 eta 2012ko transmisioei zegozkien diru-sarrerak aitortu dira, 70.962 euroren zenbatekoan.
- Zaborrak biltzeko tasaren diru-bilketa Gipuzkoako Uren Kontsortzioak egiten du lagata dituen tasekin batera; ordea, ez da dagokion ordezkotza gauzatu.
- Udal Egoitzako Zuzendaritza Batzordea udal taldeen ordezkariak eta erabiltzaileen bi ordezkariak osatzen dute; ordea, ez zen eratu 2011n udal atalak berritu zirenean, ezta gerora ere. Hori dela eta, Erakundeari dagozkion bi kontratu esanguratsuenak Udalaren Osokoak lehian atera eta esleitu zituen eta Alkateak gauzatu. Erakundearen 2012ko



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

aurrekontua Udaltzaker onartu zuen eta Udalak egikaritu eta gastua Erakunde Autonomoaren kontu-sailei egotzi zitzairen eta ondorioz, gainerako udal zerbitzuen modura arituz.



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2010(*)	2011(*)	2012	2010	2011	2012
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	2.161	1.905	2.115	367	325	360
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	3.481	3.145	3.370	592	536	574
Ondare sarrerak (5. kap.).....	318	115	75	54	20	13
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>5.960</b>	<b>5.165</b>	<b>5.560</b>	<b>1.013</b>	<b>881</b>	<b>947</b>
Langile gastuak (1.kap.).....	1.920	1.880	1.724	326	321	294
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	1.633	2.167	2.233	278	370	380
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.004	592	601	171	101	102
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>4.557</b>	<b>4.639</b>	<b>4.558</b>	<b>775</b>	<b>792</b>	<b>776</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>1.403</b>	<b>526</b>	<b>1.002</b>	<b>238</b>	<b>89</b>	<b>171</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	(71)	(80)	(75)	(12)	(14)	(13)
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>1.332</b>	<b>446</b>	<b>927</b>	<b>226</b>	<b>75</b>	<b>158</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(327)	(295)	(266)	(56)	(50)	(45)
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>1.005</b>	<b>151</b>	<b>661</b>	<b>170</b>	<b>25</b>	<b>113</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	2	1	-	-	-
Jasotako kapital transferentzia eta diru-laguntzak (7. kap.) .....	808	40	83	137	7	14
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(2.241)	(416)	(284)	(381)	(71)	(48)
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	(56)	(50)	(10)	(10)	(9)	(2)
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza.....</b>	<b>(1.489)</b>	<b>(424)</b>	<b>(210)</b>	<b>(254)</b>	<b>(73)</b>	<b>(36)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(157)	22	717	(28)	2	122
Diruzaintza Geldikin Likidoa .....	657	481	1.280	112	82	218
<b>Zorpetzea .....</b>	<b>3.012</b>	<b>2.846</b>	<b>2.978</b>	<b>512</b>	<b>485</b>	<b>507</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** Hirurtekoaren lehenengo urtean ezohiko diru-sarrerak egin dira, hurrengo urteko beheraldi handia eragiten dutenak; 2012an hobera egingo da. Osagai nagusiei dagokienez:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** 2010ean 290.034 euroren ustekabeko diru-sarrerak gertatu dira aurreko urteetako zerga itzulketen eta udal sozietatearen itzulketa baten ondorioz. 2012an igoera nagusiak Tasak eta bestelako sarrerak kontu sailean (89.000 euro) eta EIOZen (50.000 euro) izan dira. Zerga nagusien tarifa eta udal tasei dagokienez, 2011n OHZ gehitu da (% 2) eta 2012an horiek guztiek hainbat ehunekotan igoerak izan dituzte (% 1 eta % 10 bitartean).



- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Osagai nagusia UFFF da, 2011n 2,8 milioi euroren diru-sarrerak eragin zituen; hirurtekoaren beste bi urteetan 3,1 milioi euro egin zituzten.
- **Ondare sarrerak:** Larreako garaje plazak emakidan ematea ditu osagai nagusi, kopuruak behera egin duelarik urteetan zehar.

**Funtzionamendu gastuak:** Egonkor eutsi diote, 2011n gorakada txiki bat erakutsiz, baina osaera hainbat aldaketa dituela: Aldakuntza nagusiak honako hauek izan dira:

- **Langile gastuak:** 2011n behera egin dute langile bajak izan direlako eta soldata izoztu izanaren ondorioz; 2012an, berriz, aparteko soldata puntualki kendu izanaren ondorioz.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** 2010eko urtearekiko % 33ko igoera izan du, nagusiki 2011ko urtean Tolosaldeako Mankomunitateari egindako ekarpenen kontularitzako sailkapen aldaketak eraginda. Ekarpene hauek 2010ean 413.210 eurorenak izan ziren.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Aurrez aipatutako sailkapen aldaketaren ondorioz, 2011n % 41 murriztu dira.

**Aurrezki gordina eta garbia:** Lehenengo urteko diru-sarrera ezohikoek eta 2011ko diru-sarreraren urritzeak eraginda bariazio handiak gertatu dira eta 2012an egoera honako hau da: aurrezki gordinak sarrera arrunten % 18 egiten du; finantza zamak diru-sarrera horien % 6; honenbestez, aurrezki garbia diru-sarrera arrunten % 12 da, 2012an 661.322 euroren balio absolutuarekin, azken ekitaldikoak baino inbertsio handiagoak finantzatzeko bide emango lukeena.

**Kapital eragiketen emaitza:** Azpimarratzekoa da 2011n eta 2012an inbertsioek behera egin izana, hirurtekoaren lehenengo urtean izandako inbertsioen bolumen handiaren aldean; % 36an diru-laguntza bidez finantzatu dira.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** Aztertutako aldian azpimarratzekoa da 2012ko superabita, inbertsioen murrizketan sorturikoa.

**Diruzaintza geldikina:** 2011n sortutako aurrezki doiak ezin ditu urte horretako inbertsioak finantzatu eta honenbestez, geldikina murriztu egiten da. 2012an geldikinak sortu dira eragiketa arruntetan izandako superabitaren ondorioz eta egindako inbertsio txikien ondorioz.

**Zorpetzea:** 2012an 198.000 euroren mailegu berria kontratatu da areto baten erosketak finantzatu ahal izateko. Udalaren zorpetzea 2012an 3 milioi eurorena zen eta sarrera arrunten % 54 egiten zuen; finantza zamak, berriz, % 6,1 baizik ez du egin. Kopuru honi



UFFFetik itzuli beharreko diru-kopuruak gehitu behar zaizkio, 374.305 eurorenak, 2013an iraungitzen zirenak eta zorpetze maila sarrera arrunten gainean % 60an jarri dutenak.

**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Udalaren diru-sarrera eta gastu arrunten egiturak bariazio handiak izan ditu aztertutako aldian; ordea, 2012an aurrezki garbi positibo esanguratsua eskuratu da, beste erakunde batzuen diru-laguntzekin eta geldikinaren baliabide puntualarekin batera, inbertsio programa adierazgarriak finantzatzeko bide eman dutenak.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2012-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	1.308	-	1.308	1.371	1.320	51	105
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	40	-	40	128	119	9	320
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	491	-	491	616	495	121	125
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.4	3.510	3	3.513	3.370	3.316	54	96
5.- Ondare sarrerak .....	-	16	-	16	75	74	1	469
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	-	-	-	-	1	1	-	-
7.- Kapital transf. eta diru-lag. ....	A.4	-	2	2	83	19	64	4.150
8.-Finantza aktiboak .....	-	10	489	499	81	3	78	(*)101
9.-Finantza pasiboak .....	A.8	265	198	463	398	398	-	86
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>5.640</b>	<b>692</b>	<b>6.332</b>	<b>6.123</b>	<b>5.745</b>	<b>378</b>	<b>(*)103</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1.- Langileria-gastuak .....	A.5	1.903	(3)	1.900	1.724	1.724	-	91
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.6	2.404	19	2.423	2.233	1.964	269	92
3.- Finantza gastuak .....	A.8	90	-	90	75	75	-	83
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.7	621	5	626	601	534	67	96
6.- Inber. errealak .....	A.6	346	460	806	284	267	17	35
7.- Kapitalezko transf. eta diru-lag. ....	A.7	-	141	141	10	10	-	7
8.-Finantza aktiboak .....	-	10	70	80	81	77	4	101
9.-Finantza pasiboak .....	A.8	266	-	266	266	266	-	100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>5.640</b>	<b>692</b>	<b>6.332</b>	<b>5.274</b>	<b>4.917</b>	<b>357</b>	<b>83</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>849</b>			



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

	AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA				Euroak milakotan	
	ERANSK.	HASIER.		BALIOG. ORDAIN.	AZKEN ZORRA	
		ZORRA	ZORRA			
Zordunak .....	A.9	491	(19)	302	170	
Hartzekodunak .....	-	331	(2)	325	4	
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>				<b>(17)</b>		

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....		6.123
Aitortutako obligazioak.....		5.274
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>		<b>849</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(17)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>832</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....		(59)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		166
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>939</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikin Likidoa 2012.12.1ean .....		480
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza .....		832
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak .....		(33)
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz. ....		1
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N</b>		<b>1.280</b>
Diruzaintza .....		1.633
Aurrekontuko zordunak (A.9) .....		548
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.9) .....		104
Aurrekontuzko hartzekodunak .....		(361)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....		(516)
Aplikatzeke dauden sarrerak .....		-
Kaudimen-gabezietarako hornidurak (A.9) .....		(128)
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N</b>		<b>1.280</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....		62
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>		<b>1.218</b>
<b>ZORPETZEA 2012/12/31-N</b>		<b>2.978</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eransk.	2012	2011	PASIBOA	Eransk.	2012	2011
<b>IBILGETUA</b>		<b>15.039</b>	<b>15.579</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>13.032</b>	<b>12.939</b>
Erabilera orokorrera emana.....		-	-	Ondarea .....		11.290	11.290
Ibilgetu ezmateriala.....		254	311	Atxikitako ondarea (Erak.Auton.) ...		(1.304)	(1.304)
Ibilgetu materiala .....		14.303	14.785	Lagatak ondarea .....		(1.947)	(1.947)
Ibilgetu finantzarioa .....		482	483	Ondarea Erabilera orokorrerakoa ...		(10.155)	(10.056)
				Ekitaldi itxien emaitza .....		14.956	15.106
				Ekitaldiaren emaitza.....		192	(150)
<b>ZORDUNAK</b>		<b>573</b>	<b>582</b>	<b>BANATZEKO GASTUAK</b>		<b>374</b>	<b>333</b>
Indarreko aurrekontua .....	A.9	378	273				
Aurrekontu itxiak .....	A.9	170	219	<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>	A.8	<b>2.571</b>	<b>2.580</b>
Askotariko zordunak.....		65	84				
Entitate publikoak.....	A.9	88	101	<b>HARTZEKOD. EPE LABURRERA</b>		<b>1.284</b>	<b>1.704</b>
Kaudimengabez. zuzkid. ....	A.9	(128)	(95)	Indarreko ekitaldiaren aurrek. ....		357	322
				Ekitaldi itxien aurrek. ....		4	9
				Sarrerak itzultzeagatiko hartzekod.		-	1
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>1.649</b>	<b>1.395</b>	Erakunde Publiko hartzekodunak...		103	116
Erakunde Autonomoari kreditua .....		16	75	Bestelako hartzek. ....	A.4	369	952
Finantza inbertsioak .....	A.9	1.521	865	Beste zor batzuk (maileguak) .....	A.8	407	266
Diruzaintza .....		112	455	Jasotako bermeak eta gordailuak...		44	38
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>17.261</b>	<b>17.556</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>17.261</b>	<b>17.556</b>

2012 ETA 2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2012	2011	SARRERAK	2012	2011
Langileria-gastuak.....	1.731	1.885	Negozio zifraren zenb. ....	338	299
Ibilgetua amortizatzeko zuzk.....	546	482	Zerga zuzenak .....	1.371	1.300
Horniduren aldaketak .....	19	4	Zeharkako zergak .....	128	78
Kanpoko zerbitzuak .....	2.253	2.173	Jasotako transf. eta dirul.....	3.454	3.183
Emand. transf. eta dirulag.	611	642	Bestelako sarrerak.....	294	241
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>	<b>425</b>	<b>-</b>	<b>USTIAKETA GALERAK</b>	<b>-</b>	<b>85</b>
			<b>EMAITZA FINANTZARIO NEG.</b>	<b>65</b>	<b>47</b>
			<b>AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK</b>	<b>17</b>	<b>14</b>
			<b>APARTEKO GALERAK</b>	<b>151</b>	<b>4</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINA</b>	<b>192</b>	<b>-</b>	<b>EKITALDIAREN GALERA</b>	<b>-</b>	<b>150</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 SANTIAGO UDAL EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

### 2012-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERA	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE. KITAT.	KOBRA. KOBRA.	GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	457	-	457	446	405	41	98
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt...	A.7	570	-	570	408	375	33	72
5.- Ondare sarrerak .....	-	1	-	1	-	-	-	-
7.- Kapital transf. eta diru-lag. ....	-	-	38	38	27	10	17	71
8.-Finantza aktiboak .....	-	-	20	20	-	-	-	-(*)
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>1.028</b>	<b>58</b>	<b>1.086</b>	<b>881</b>	<b>790</b>	<b>91</b>	<b>83(*)</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak .....	-	-	-	-	-	-	-	-
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb...	A.6	1.018	5	1.023	925	904	21	90
3.- Finantza gastuak .....	-	-	-	-	-	-	-	-
6.- Inber. errealak .....	-	10	53	63	52	47	5	83
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>1.028</b>	<b>58</b>	<b>1.086</b>	<b>977</b>	<b>951</b>	<b>26</b>	<b>90</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(96)</b>			

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBRA./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA
Hartzekodunak .....	-	17	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>		-	-

### AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak .....	881
Aitortutako obligazioak .....	977
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>	<b>(96)</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(96)</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....	20
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>(76)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikin Likidoa 2012.1.1ean .....		143
Aurrekontuaren emaitza .....		(96)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak .....		-
Sarrerren itzulketeng. eta beste hartzekod. bariaz. ....		-
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N</b>		<b>47</b>
Diruzaintza .....		3
Aurrekontuko zordunak .....		91
Aurrekontuz kanpoko zordunak .....		-
Aurrekontuzko hartzekodunak .....		(26)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....		(21)
Aplikatzeke dauden sarrerak .....		-
Kaudimen-gabez. zuzkidura .....		-
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012.12.31-N</b>		<b>47</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina .....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>		<b>47</b>
<b>ZORPETZEA 2012/12/31-N</b>		<b>-</b>

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2012	2011	PASIBOA	2012	2011
<b>IBILGETUA</b>	<b>1.764</b>	<b>1.764</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>	<b>1.811</b>	<b>1.908</b>
Ibilgetu ezmateriala .....	9	9	Ondarea .....	10	10
Ibilgetu materiala .....	1.755	1.755	Atxikipen bidean dagoen ondarea .	1.304	1.304
			Aurreko ekitaldietako emaitza .....	594	460
			Ekitaldiaren emaitza .....	(97)	134
<b>ZORDUNAK</b>	<b>91</b>	<b>223</b>	<b>HARTZEKOD. EPE LABURRERA</b>	<b>47</b>	<b>92</b>
Indarreko ekitaldiaren aurrek. ....	91	223	Indarreko ekitaldiaren aurrek. ....	26	17
			Entitate publiko hartzekodunak .....	5	-
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>	<b>3</b>	<b>13</b>	Beste zor batzuk .....	16	75
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.858</b>	<b>2.000</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.858</b>	<b>2.000</b>

2012 ETA 2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK			Euroak milakotan		
GASTUAK	2012	2011	SARRERAK	2012	2011
Ibilgetua amortiz. zuzkidura .....	52	36	Negozio zifraren zenb. ....	445	380
Kanpoko zerbitzuak .....	925	909	Jasotako transf. eta dirul. ....	435	696
<b>USTIAPENAREN MOZKINA</b>	<b>-</b>	<b>131</b>	<b>USTIAKETA GALERAK</b>	<b>97</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIO POS.</b>	<b>-</b>	<b>1</b>			
<b>AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK</b>	<b>-</b>	<b>2</b>	<b>APARTEKO GALERAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINA</b>	<b>-</b>	<b>134</b>	<b>EKITALDIAREN GALERA</b>	<b>97</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 VILLABONA LANTZEN, SA

EGOERAREN BALANTZEA 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eransk.	2012	2011	PASIBOA	Eransk.	2012	2011
IBILGETUA		-	-	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>412</b>	<b>413</b>
				Kapital soziala.....		378	378
				Erretserbak .....		248	248
				Aurreko ekitaldien emaitza .....		(213)	(213)
				Ekitaldiaren emaitza .....		(1)	-
<b>IZAKINAK</b>	<b>A.12</b>	<b>1.296</b>	<b>1.366</b>	<b>EPE LUZERAKO ZORRAK</b>		<b>-</b>	<b>1</b>
<b>ZORDUNAK</b>		<b>24</b>	<b>34</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>927</b>	<b>997</b>
				E/laburreko zorrak.....		86	84
<b>DIRUZAINZTA</b>		<b>19</b>	<b>11</b>	Merkataritzako hartzekodunak .....	A.12	841	913
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.339</b>	<b>1.411</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>1.339</b>	<b>1.411</b>

2012 ETA 2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan			
GASTUAK	Eransk.	2012	2011	SARRERAK	Eransk.	2012	2011
Langileria-gastuak .....				Negozio zifr. zenbateko garbia.....	A.12	42	-
Izakinen bariazioa .....	A.12	70	-	Bestelako ustiaketa sarrerak .....		19	25
Hornidurak .....		-	1	Beste emaitza batzuk .....		37	-
Bestelako ustiaketa gastuak .....		29	24				
				<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>		<b>(1)</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>	<b>EKITALDIAREN GALERA</b>		<b>(1)</b>	<b>-</b>

ESTADO DE CAMBIOS DEL PATRIMONIO NETO DEL EJERCICIO 2012 Y 2011				Miles de euros		
CONCEPTO	CAPITAL SOCIAL	RESERVA LEGAL	RESULTADOS ANTERIORES	RESULTADO EJERCICIO	TOTAL	
<b>SALDO INICIAL AÑO 2011</b>	378	248	-	(213)	413	
Operaciones con socios.....	-	-	(213)	213	-	
<b>SALDO FINAL AÑO 2011</b>	378	248	(213)	-	413	
Resultado 2012.....	-	-	-	(1)	(1)	
<b>SALDO FINAL AÑO 2012</b>	378	248	(213)	(1)	412	

2012 ETA 2011-KO EKITALDIEN ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA				Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	KAPITA SOZIALA	LEGEZKO ERRETSEBA	AURREKO EMAITZAK	EKITALDIAREN EMAITZA	GUZTIRA	
<b>HASIERAKO SALDOA, 2011 URTEA</b>	<b>378</b>	<b>248</b>	<b>-</b>	<b>(213)</b>	<b>413</b>	
Bazkideekiko eragiketak.....	-	-	(213)	213	-	
<b>AZKEN SALDOA, 2011-KO URTEA</b>	<b>378</b>	<b>248</b>	<b>(213)</b>	<b>-</b>	<b>413</b>	
2012ko emaitza.....	-	-	-	(1)	(1)	
<b>AZKEN SALDOA, 2012-KO URTEA</b>	<b>378</b>	<b>248</b>	<b>(213)</b>	<b>(1)</b>	<b>412</b>	



## ALEGAZIOAK

### II IRITZIA

#### II.1 UDALA ETA SANTIAGO UDAL EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

##### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

###### KONTRATAZIOA

1.- Udal eraikinak garbitzeko kontratuaren lehiaketaren inguruan, 353.700 euroan esleitu zena, GAOn soilik argitaratu zena eta ez DOUE eta BOEn, zegokiokeen moduan, esan:

Kontratuaren zenbatekoan akats bat egon zela onartzen dugu Administrazio klausulen agirien 5. puntuan ezarritakoarekin alderatuta, izan ere, urte bakarreko lizitazio prezioa (196.200 euro) kontutan hartu zen, horregatik arau armonizatupeko kontratua ez zenez, Urriaren 30eko 30/2007 Herri Administrazioen kontratuen legearen 126.1 artikuluari jarraituz, lege berberaren 13. eta 76. artikuluei loturik dagoena eta lizitazio unean indarrean zegoena, GAO- an baino ez zela argitaratu behar erabaki zen.

Beraz, kontratuaren prezioaren akatsa onartzen dugu, eskaintzen zen kontratuaren bi urtetarako prezioa gehitu ez genuelako, zeina 196.200 eurokoa bider bi, guztira, 392.400 eurokoa izan behar baitzen, eta EBAOn eta BOEn argitaratu behar izan zen, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak ongi adierazten duen legez.

I.Eranskin bezala, Baldintza administratiboen Pleguak atxikitzen dugu, non kontratuaren urte 196.200 euroko balioa duen ikus daiteke.

2.- Etxez etxeko laguntza emateko zerbitzuaren kontratuaren inguruan, 2012ko ekitaldian 144.110 euroren egikaritza izan zuena, zerga ordaintzetik salbuetsia dagoen irabazi asmorik gabeko erakunde bati esleitu zitzaiona; honek BEZik gabe lizitazio tipoaz gainera prezioa eskaini zuen eta honenbestez, eskaintzari uko egin beharko zioketen. Ez da, gainera, BEZari meneratutako eta meneratu gabeko lehiatzaileen artean eskaintza ekonomikoen balorazioan kontratazioan buru egiten duen berdintasun printzipioa gorde, ez baitu guztientzat BEZik gabeko prezioa aintzat hartu. Honen inguruan esan:

Kontratuaren prezioari buruzko Administrazio-baldintza partikularren 4.2 puntuan, lan egunetarako zenbateko zehatz eta mugatu bat ezartzen zen (19,72 euro) eta jaiegunetarako (23,44 euro), baina ez zen zehazten prezio hauek BEZ-a barne zuten ala ez, beraz enpresa esleipendunak -F.E.P.A.S- (19,52 euro lan egunetan eta 23,44 euro jaiegunetan) eskainitako zenbatekoa agirian ezarritakoarekin bat zetorrela pentsatu zen, irabazi asmorik gabeko erakundea izanik BEZ-atik salbuetsita dagoelako eta eskainitako prezioa agirian ezarritakoa baino txikiagoa zelako.

II.Eranskin bezala, baldintza administratiboen Pleguak atxikitzen ditugu.

III.Eranskin bezala, 2013-ko abenduaren 11ko Udal Idazkariaren ziurtagiria atxikitzen dugu, non

2. puntuan, eskaintzak aurkezteko 2013ko azaroaren 26tik abenduaren 10 bitarteko epean ez den eskaintzarik aurkeztu adierazten den, eta 3. puntuan, eskaintzak aurkezteko epe



garaian, “Fundación para el Estudio y la Promoción de la Acción Social” enpresaren fax bat jaso den, 2013ko abenduan posta zerbitzuan bere proposamena aurkeztu duela adieraziz. UDALAK ZUZENDUTA IKUSI BUKAERAN.

### **II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.**

2012ko abenduaren 31n Villabona Lantzen, SA Sozietate Publikoaren egoera balantzen jasoak dauden izakinen zati esanguratsu baten balioa dela eta azaleratu den zalantza egoeraren ondorioz, beharrezkoa ote den Udalak Sozietate Publikoan duen partaidetzaren balioaren gainean narriadura erregistratu behar ote den inguruan esan:

Ondorengo puntuan adierazten uegunaren edukin berdina izanik, horretan esaten denari lotzen natzaio.

## **II.2 VILLABONA LANTZEN, SA SOZIETATE PUBLIKOA**

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

1.Egoeraren balantzeko izakinen idazpuruak kontutan hartutako 64 garaje eta honen 1,1 milioi euroko balio eta deprezioaren inguruan esan:

Sozietateak duela urte batzuk dituen eraikinak saltzen saiatzen ari dela, emaitzarik gabe suertatzen ari dena, eta 2012an eraikinen salmenta-prezioa merkatuan finkatuta dagoenaren kostu-baliotik behera. Hori dela eta, 2013ko urteko kontuetan (Administrazio Kontseiluak onartu gabe dituztenak) 434.000 euro-ko balio galtze hornidura bat zuzkitu da izokin moduan (62 aparkaleku) ondareen merkatuko prezioa kontabilitatean agertzen dena baino txikiagoa delako.

IV. Eranskin bezala, 2013ko urteko kontuak atxikitzen ditugu.

Euskadiko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auziak emaniko 2011ko urriaren 11ko 710/2011 zenbakidun sententziari dagokionez (176/2011 apelazio helegitea). Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegian jarraitutako 3/2012 Betearazpena, behin betiko artxiboarekin amaitu da.

V. Eranskin bezala, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak emaniko AUTOA atxikitzen dugu.

## **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

Aurrekontuak azaldu behar duen, langileei buruzko derrigorrezko eranskina, non aurrekontuan hornitutako postuak barneratu behar diren, esan:





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Udalaren jarduera arintzeko, Udalak udalbatzar berberean, aurrekontuaren onarpena eta RPT zerrenda onartzeko ohitura izan du. Hau zuzenduta izan da, 2014ko aurrekontuari derrigorrezko langileen eranskina gehituz.

VI. Eranskin bezala, 2014. urteari dagokion langile eranskin erlazioa atxikitzen dugu.

### III.2 KONTRATAZIOA

2 kontratuan (erresidentziaren kudeaketa), 4 (Lorezaintza zerbitzua) eta 5 (Gazte zerbitzua), balio judizioa eskatzen zuten irizpideek formula bat abiaburu hartuta kalkulatu diren haiek baino garrantzia handiagoa zutela adierazten den, halako kasuetan adituen batzordea eratzeko, edota berariaz gaitutako erakunde tekniko baten parte-hartzea eskatuz, pleguek ez zuten horrelakorik aurreikusten, esan:

5. kontratuan (gazteria zerbitzua) adituen lantalde baten edo erakunde tekniko espezializatu baten parte hartzea aurreikusi izan baliteke ere, kontratu honetarako eskaintza bakarra aurkeztu zela nabarmendu behar da, MAINDI ELKARTEARI dagokiona hain zuzen ere. Hori dela eta, ez zen beharrezkoa izan inolako erakunde tekniko espezializatu baten parte hartzea eskaintzen balorazioa egin ahal izateko.

VII. Eranskin bezala, MAINDI ELKARTEA-k aurkeztutako proposamena bakarria izan dela jasotzen duen Udal Idazkariaren ziurtagiria atxikitzen dugu.

